

## 1) Commons

*Ura, airea, lurra eta sua (gaur egun energia esango genieke), milaka urtetatik oinarritzko elementuak kontsideratuak izan dira eta bizitzaren oinarri material komunak, antzineko Greziako mendebaldeko filosofia pentsamendu hastapenetatik.*

*Ovidioren Metamorfosian – duela bi mila urte baino gehiago idatzitako latinezko literaturako klasikoa – laku txiki batean dauden nekazari batzuek ez diote Latona jainkosari uzten edaten eta honek honela esaten die: “zergatik ukatzen didazue ura? Denen eskubidea da uraren erabilera. Naturak ez dio inori jabetza pribatuan eman eguzkia, airea ala ur gardena: guztiona den zeozerrera hurbildu naiz baina fabore bat balitz bezala ari natzaizue eskatzen (...) Ur zurrupa niretzat nektar antzekoa izanen da, eta esker onez esango dut bizitza berritu zaidala: urarekin bizitza opariko didazue berriz”. 500 urte ondoren Kode Justinianoan sistematikoki agertuko diren zuzenbide elementuak topatzen ditugu Ovidioren hitz horietan.*

*Guztion ondasunak (natural Commons hauek), res nullius ondasunen alderantzizkoak dira. Hau da, azken hauek edonork hartu ahal ditu eta lehenengoa izateagatik, jabe bihurtu. Ondasun komunak ordea guztionak dira eta arrazoi honengatik inor ezin da haien jabe bakarra izan. Ondasun hauetatik ez da legezko irabaziak lortzea. Ondasun besterenezin edo inalienableak beraz, Princeps emperadore eromatarrek berak ere berejabetu ezin dituena. Bizitzarentzat ezinbestekoak eta horregatik giza banako guztien oinarritzko eskubideei lotuak. Pixko bat sakonduz, natural Commons hauek izaki guztientzat komunak dira – landare eta animaliak barne – ez ba dugu nahi behintzat ikuspuntu antropozentriko batean erori nahi.*

*Mendetan zehar Commons ondasun hauen zerrenda luzatu egin da, gai naturaletatik harago zabalduz. Justinianoren garaian aski zaila izango zen web sarea era guztion ondasuna kontsiderattua izango litzatekela aurreikustea.*

*Era berean, ondasun komun natural ezinbestekoak (ura adibidez) eta oinarritzko ondasun komun hauetaz gozatzeko guztion eskubide zehatza bermatzeko beharrak (osasunak eta heziketak bezala), zerbitzu publiko eta sozialak eraikitzea behartu gaitu. Interes orokorreko zerbitzu publikoak dira beraz, planetaren zati handi batean, bermatzen dutenak ondasun hauetara heldu ahal izatea. Ez da baina bat batekoa edo “inmediatoa” ondasun hauetara iristea. Baizik eta “mediatua”, hau da zerbitzu sozial baten beharra dauka.*

*Gaur egiun, fede okerreko “sofista” batzuk esaten ari dira European eta munduan ez dela “uraren pribatizazioa” gertatzen ari. Baizik eta ur zerbitzuen “kudeaketa soilaren” pribatizazioa. Absurdoa. Donostiar gehienak zer egiten dute ba? Kuboekin joan iturrietara, imagin bukoliko batean bageunde bezala, eta han “zuzenean” ura jaso? Ez noski. Ur zerbitzua (hodiak, akueduktoak) da gure etxetara ura helarazteko modu bakarra. Ura lortzeko behar dugun zerbitzuen kudeaketa pribatizatzeak esan nahi du funtsean ondasuna bera pribatizatzen dela.*

*Materialak ala inmaterialak, naturalak ala sozialak, Commons delakoak zer dira? Inork ezin dituenak kontsideratu indibidualki produzituak izatea. Kolektibitateak Naturarengandik jasotako opariak (inork ez ditu produzitu ura eta uraren ziklo globala, airea zein basoak) edota aurreko generaziotatik jasotzen den herentzia: kolektibitatearen pentsamenduaren eta akzioaren kondensazioak adibidez (jakintza, kodeak, hizkuntzak)*

*Bizitzarako nahitaezkoak direnak dira Commons delakoak. Ez zentzu biologiko soil batean ulertua. Indibiduoak haien artean konektatzen dituzten estrukturak, elkarrekin dauzkagun elementu zehatzu ala zehaztuezinak eta gizarte bateko partaide bilakatzen gaituztenak. Ez monada aislatuak eta*

haien artean norgehiagokan. Komunitateak aukeratutako arauekin, elkar mantentzen eta errepikatzen ditugun elementuak: élites postdemokratikoei kendu behar zaien terrenoa eta parte demokrazia hartze moduekin autogobernatua izan behar duena. Zuzenean parte hartzen duen kolektibitate baten elkar gune eta elkarrizketa gunea dira Commons ak. Demokrazia eta ondasun komunak beraz estuki lotuak daude.

Mendetan zehar hala ere, Commons pribatizatuen zerrenda zabaldu egin da: Justinianoren garaian inork ezin izango zuen aurreikusi kapitalismo modernoa hain zuzen “enclosures” edo eremu itxitan jaioko zela. Ez eta lurra pribatizatuko zela eta are gehiago haziak eta biodibertsitatea, eta ondoren ura, airea eta jakintasuna bera (jabetza intelektualaren eskubideen bidez, adibidez). Beranduxeago aipatuko dudan Italian ospatu zen erreferenduma hain zuzen, “enclosure” edo eremu itxi hauen kontrako botoa izan da. Commonsen eta uraren kudeaketa demokratikoaren aldeko botoa.

## **2) Kontzeptuaren arkeologia**

Commonsen paradigma, ez da mendebaldeko paradigma, baizik eta zentzu askotan paradigma unibertsal edo plurala. Haren sustraiak aro eta kontinente erabat ezberdinetan daude: Lurra planeta zeharkatzen du denboran eta espazioan. Eromatarren eta latinoen “res communes omnium” aipatu dut baina mendebaldeko beste tradizio handia ere aipatu nezakeen: britaniar “commonlaw” deritzana. Era berean ondasun komun eta bananduaren kultura, garrantzi handikoa da Afrikan eta Ameriketako kultura indigenatan. Aymara indigena bati eskerrak ematen badiozu ur edalontzi bat eskaintzeagatik, esango dizu ez duzula zertan bera eskertu behar baizik eta ama lurra. Kultura indigenak, ondasun komun naturalak (natura) ikuspuntu ez antropozentriko batean berpentsatzea laguntzen gaituzte: ez gara gu guztiok uraren jabe baizik eta ura da gure jabe. Naturarekin harremana zentzu zuzenean ipintzen da honela: natura da gure jabea, berarengandik gatoz eta hari esker bizi gara.

Duela hamar bat urtetatik guztion ondasun edo ondasun komunen paradigma, “zentzuaren ikusmuga” bihurtu da. Mugimendu ezberdinen elkargune teoriko eta praktikoa: uraren mugimenduak, janaren eta hazien subiranotasunaren aldekoak (“pribatizazio – trade mark” binomiarengandik aske), klima justiziaren aldekoak, jakintasun/ informazio jario librearen aldekoak, software eta internet libreak, adibide batzuk besterik ez dira. Partekatzearen eta kooperazioaren kultura eta logika da guzti hau. Lehiaren eta bazterketaren kontrakoa. Koneksioaren kultura da beraz (guztion ondasunak, elkar konektatzen gaituzten estrukturak dira), kapitalismoaren kultura atomistikoa eta antisozialaren kontrakoa. Neoliberalismoak eta pribatizazio atomistikoa izan duten garaipenek sortutako krisiarengandik kemena jasotzen duen kultura.

## **3) Ura munduan eta “mehatxu” nagusiak (kutsadura; obra handiak; pribatizazioa eta merkataritza**

Ura guztion ondasunak dauzkan “mehatxutaz” mintzatu nahi nuke, horretarako bi irudi erabiliz, ala hobe esanda, bi pertzepzio: burutapen edo imaginario estralurtar bat eta ume bat.

### **3.1) Estralurtarraren pertzepzioa: krisiaren dimentsio ekologikoa**

Estralurtarraren pertzepzioa, kanpotik lurra begiratzen duenaren pertzepzioa da, hau da espaziotik. Estralurtarrak, planeta urdina ikusiz, pentsa lezake lurtaurrek mila arazo izan lezaketela baina ez urarena. Oker legoke ordea. Lehenik eta behin oker legoke gizakiaren eta honen aktibitatearen erru ez den arrazoi batengatik: planetako uraren zatirik nagusiarena – hau da 97,5% - itsaso eta ozeanoko ura da eta gazia izanik, ez da baliagarri bizitza mota bejetal eta animal gehienentzat, ez eta giza jardueraren gehienentzat ere. Samuel T. Coleridge ren baladako marinel zaharra, kexu agertzen zen: “Ura, ura edonon, eta edateko ttanttarik ez”. Beste 2,5% ur “gozoaren” zati nagusi bat,, hau da, kasik gatzik gabeko ura, poloko izotzetan hertsita dago,

gutxienez, lurraren berotze prozesu globalak urtuko ez duen arte. Honela, lurrean dagoen uraren zatitxo nimiño bat besterik ez dago egoera likidoan, ibai, laku eta lur azpiko ur **faldatan**: guztiaren 0,75 besterik ez (eta 0,01 soilik azaleko uretan)

Baina estralurtar baikor hau, beste arrazoi batzuegatik ere oker legoke eta kasu honetan gizakia eta bere aktibitatearengatik. Azken hamarkadetan bereziki, ur falda berak berriz ere betetzeko behar den baino erritmo biziago batean kontsumitzen ari da gizakia falda hauen ura ("Ur ziklo" naturala desorekatuz: ebanporazioa, euria e.a.) Maiz ibaiak ere lehortzen ditugu eta itxasora ez ditugu iristen uzten (arrazoi antropikoa duen klima aldaketaren efektu konbinatuarengatik ere). Industriarako ur erabilera, eta sostengaitza den zooteknika eta nekazaritzarako ur erabilera. Ura, gizakiaren hainbat jardueren atzean dagoen protagonista ixila eta ezkutukoa da.

Munduko ur krisiaren arduradun nagusien artean (eta gure mahaietara iristen den hainbat janari txarren arduradun) industria nekazaritza modelo bat dago, zeinek lurraldeen janaren subirotasuna (ziklo motza deitzen dena) kontuan hartu ordez, nekazaritza intentsiboa eta exportaziorako diseinatua gauzaten duen. Nekazaritza modelo honek energia input oso handia behar du, hau da, petroliotik datozen produktuetan oinarritzeaz gain (herbizidak eta pestizidak lehenik eta behin), iturri fosilak erabiltzen dituzten makinak behar ditu. Modelo honek ur erresebak xahutzen ditu eta maiz ura importatu behar izaten du, beste lurraldeetatik hartuz. Monokultibo nekazaritzak ur kantitate handia behar izaten du eta abere ikuilu handitarako pentsua produzitu behar du. Modelo hau saiatzeko merkaturak ahalik eta produktu omogeneo gehien kokatzen eta produkzioa dagoen lurraldearengandik erabat aldentu egiten da: agroindustriak inposatzen du lurraldeko terenoarekin zerikusirik ez duen laborantza. Bortizki aldatzen ditu mendetan eta milaka urtetan zehar autoaukeratu diren laborantzak, lurralde bakoitzaren ezaugarri eta ur kantitatea kontuan hartuz hazi zirenak.

Baina industriak ere ardura handia du, hau da, berriz ere industria produkzio mota konkretu bat, ur kantitate handia barreiatzea eta kutsatzea onartzen duena (produkzio zikloan erabiltzen dena), ekosistema bateko natur baliabideak beti ustiatu ahal izango balira bezala. Ikusten denaren atzean ikusezina nabarmentzera ikasi behar dugu. Bai eta likidoa solidoen barruan. Solidoak diren hainbat produkturen atzean, kotxe bat adibidez, ur kantitate handiak daude: tonelada bateko auto batek, 150 tona ur behar du (kilo bat behi okela produzitzeko adibidez 11 milatik 20 milara ur litro behar da eta kafe katilu baten atzean, 140 litro ur eta abar eta abar). Industria astuna, petrolio, mehatzak, baina bai eta high-tech eta paper industria, ur kontsumatzaile (eta kutsatzaile) erraldoiak dira.

Baina estralurtarra, lehen aipatu dugun hirugarren arrazoi batengatik dago oker: kutsadura. Kasu honetan ere arazoa gure garapen modeloan datza eta gizakiak eragindako ingurumenaren degradazioan. Giza jarduerak ia bi millioi tonelada zabor eta zepa botatzen du ibai, laku eta lurretan, uren kalitatea sakonki aldatuz. Urbanizazio erraldoiak, industria, nekazaritza industrialak eta zooteknika, uren kalitatea aldatzen ari dira, kutsadura kimiko, termiko eta biologiko sakonekin. Nahiz eta ura teknikoki baliabide amaigabea izan (sistema itxia da lurrarena non ur kantitatea beti berdina den), kutsaduraren bidez agortu ahal dena bihurtzen dugu. Kalitatea horren sakonki aldatuz, erabil gabea bilakatuz eta horregatik lurrean bizitzarako beharrezkoa den ur kantitatea murriztuz. Produkzio – Kontsumo modelo nagusia planetaren baliabide eta limite fisikoarekin talka egiten ari da. Natura ez da betirako ustiatzeko funtsezko materien erreseba bat ez eta gure pozoientzako zeru azpiko zabortege erraldoi bat. Ingurumenarekin orekan dagoen ekonomia sostengarria berpentsatu behar dugu.

Estralurtarra oker ibiliko da laugarren arrazoi batengatik, hau da, klima aldaketa eta eurien distribuzioan honek duen eragina. Karbono anidridoaren kontzentrazioa azken 200 urtetan,

*milloiko 280 zatitik 380 zatira pasa da, 35% gehiago beraz. Azken 100 urtetan planetaren temperatura 0,74 gradu zentigrau igo da, zeren eta xurgatzaile global naturalak (global skins) gaur egun xurgatzeko edo absorbitzeko kapazitatea galdu dute eta gizakiak produzitzen duen anidrido karbonikoaren erdia baino gutxiago xurgatu ahal dute.*

*Ozeano batzutan, uraren berotzea 3.000 metro sakoneraino iritsi da. Klimatografoak, klima kaosaren aurrean gertatzen denari, fenomeno atmosferikoen estremizazioa deitzen diote. Hau da uholde, alubioi eta lehortearen frekuentziaren intentsitatea, zenbait kasutan denboraldi berdinean.*

*Planetako zenbait eskualdetan euri gehiago egingo du eta beste zenbaitetan gutxiago. Eta destinoaren adar jotzea balitz bezala, badirudi lehendik euria zegoen zonatan, euri gehiago izango dutela. Eta basamortu eta eskualde lehorretan, lehorte gehiago. Orokorrean, eurien intentsitatea handitu egin da: nahiz eta urtean zehar jasotzen den ur kantitatea berdina izan, kantitate hau epe laburragoetan eroriko da eta honek eragin grabeak izango ditu deforestazioak eta zementifikazioak txikitutako lurraldetan, non ura azalean irristatzen den eta horregatik ur faladak ez diren berritzen. Eta honek eragin nabarmena du ibaiak daramaten ur kopuruan.*

*Elementu guzti hauen bilketa (sistemek berritzeko duten kapazitatea baino kantitate handiagoak hartzea, kutsadura eta klima kaosa) gizakiaren erabakien kontsekuentzia da eta beraz gure ardua: garrantzizkoa da hau azpimarratzea, gu bait gara planetako ekosistemaren oreka arriskuan ipini dugunok edota faltan ez dauden baliabideak urritu ditugunok, ura kasu. Gu gara aukera ezberdinak hartu ahal dugunok. Ezbeharreko elementu guzti hauek, bi fenomemo larriri ireki dizkiote ateak: pribatizazioa eta uraren negozioa – eta geroxeago jardungo gara horretaz – eta uraren interesek eragindako konfliktuen frekuentziaren areagotzea.*

### **3.2) Ur konfliktuak eta obra handiak: dimentsio geopolitikoak.**

*Urarengatik dauden guden gaia sakontzeko ez dut hemen denborarik. Arrazoi geopolitikoak, ekonimikoak eta ekologikoak medio, 180 konfliktu kontatu izan dira k.a 3.000 urtetik gaur arte: ikerketek erakusten dutenez, hauen frekuentzia ikaragarri handitzen da gaurko arora gerturatzen garela. Datu hau lotuta dago gaur egun dagoen baliabide horren murriztasunarekin. Gizakiak “produzitutako” murriztasuna.*

*Azken hamarkadetan hainbat dira obra handiek edota ur pribatizazioek eragindako bortizkeri eta konfliktuak. Herriek, uraren iturriek elkar partekatzen dutenek eta komunitate internazionalak oroar, paktu sozial berri bat behar dute, uraren partekatzea elkar egin eta erabilera justu bat finkatuz. Munduan 145 herrialdek partekatzen dute ur iturriren bat – munduko biztanleen 90% - eta kasu askotan estatuen ur dependentzia, beste estatu batean sortzen den ur jario edo iturritan dago.*

*Pantano edo presa handiei, urari lotutako infrastrukturei eta uraren kanalizazio edo urbide aldaketei atxikia, beste arazo delikatu batzuk daude: ondasun komuna den elkar partekatze justua, estrategia geopolitikoak, indartsuenen politikak eta ur xantaiak. Bizitza eta gizakiaren jarduera guztiak urarengandik banandu ezinak direlako, uraren kontrolak estatuen eta estatu barruko interes ezberdinen arteko konfliktuak sortzen ditu (nekazaritza handi eta txikien arteko interes kontrajarriak, turismoa, energia produkzioa eta erabilera zibila. Estatuak ere “pribatu moduan” aritzen dira, adibidez ibai bat haiena besterik ez dela kontsideratzen dutenean eta horren urak nahi bezala erabili. Baina bailaran kokatuak dauden herri eta ekosistemen bizitza, goiko aldean hartzen diren erabakien menpe dago, bai ura hartzen dutela, desbideratu edota kutsatzen dutela*

*Turkiako gobernuak nahi izan duen “Gap proiektuak” 21 presa handi aurreikusten ditu kurdien*

*lurraldean. Idropolitika edo ur politika adibide ezin garbiagoa da hau, lurralde oso bati ezartzen zaion “ur xantaia”. Tigris eta Eufrates ibaiak desbideratzen, Turkiak xantaipean izanen ditu Siria eta Iraq, askoz ere ur gutxiago iritsiko bait da lurralde haietara. Horrekin batera, Ekialde Ertaineko nekazaritza erreserba izan nahi du Turkiak, alboko herrialdeak haien menpe izanik jaki eta urari dagokionez. Garbi dago estratekia honen gauzatzean, eskualdeko herrien arteko guda aurre ikusi daitekeela.*

*Ez da misterio bat ere, Isaraeleko estatuak kontrolatu nahi dituen ur baliabideak daudela Israel – Palestina konfliktuaren atzekaldean (“harresiaren” kokapena, zenbait lurralde estrategikoren okupazioa). Israelek kontrolatzen dituen lur gaineko urak eta lur azpiko ur faladak.*

### **3.3) Umearen pertzepzioa: ekonomia – finantza dimentsioa**

*Aurretik esan bezala, urritasunak eta balio estrategikoak bilakatzen dute ura gero eta preziatuagoa. Benetazko bussiness negozio eremu bat, merkataritza eragiketa eta profita egin nahi duenarentzat. Hurrengo milurte hauetako negozioerik handienetarikoa bihurtu da ura, guztion ondasuna izanik ere. Eta bada guzti honetatik abantaila ekonomikoak jasotzen duenik. Bai eta ondasun honen txikizio globaletik ere: uraren multinazionalak badakite gizakiak burututako murrizketa honek, irabazte aukera paregabeak eskaintzen dizkiela: eskaera globala goraka eta eskaintza beheraka doala, merkatu produktua kontsideratzen duten prezioak altxatzeko aukera paregabea dute.*

*Honenbestez, iritsi gara merkataritza eta pribatizazioaren gaira. Galdera bat egin nahi dizuet: norena da ura? Nor da euriaren jabe? Galdera xelebrea dirudi agian. Galdetuko banizue bezala ea norena den arnas hartzen dugun airea. Baina galdera honek hain zuzen narama aipatu dizuedan bigarren pertzepziora, hau da, umearen pertzepzioa. Gure galderari, umeak erraz erantzungo luke ura eta airea denona dela, animaliena, landare eta basoena, sendiartekoena, eskolako ikasle lagunena. Teorian, arrazoi du umeak baina praktikan ez. Ez bait daki pribatizazio prozesu astunak daudela gaur, pentsaezina zena posible egiten dutenak, ura guztion ondasun eta eskubide izateri uko egiten diotenak, profita lortzeko produktu bat bihurtuz eta munduko populazioaren zati osoak baztertu ahal izanez.*

*Bada paradoxa efektuko beste adibide esanguratsu bat. Boliviako Cochabamba hiriko ur kudeaketa enpresaren pribatizazioa. Bechtel Spa multinazionalak eta bere nazioarteko sozioek, nekazariak erabiltzen zituzten euri ura jasotzeko ur zisternak eta aurreko urtetan eraikitako ureztatzeko sistemak “erabiltzeko eskubideagatik” tarifa berezi bat ezarri zuten. Cochabambako umeari galdetuz norena den euria, honek erantzun beharko luke Betchel konpaniarena dela. Cochabambako istorio hau uraren konfliktu bortitzaren ispilu da, nekazari eta bizilagunak, multinazional baten aurrean kontrajarriak.*

*Izan ere, pribatizazioaren ondoren, ur tarifak 300% igo ziren, eta horrek biztanleriaren talde asko ura ezin erabiltzera bultzatu. Matxinada herrikoi luze, gogor eta zoritxarrez bortitz baten ondorioz, multinazionala hiritik kanporatua izan zen eta hiriko ur zerbitzuak berriz ere biztanleriaren esku daude. Galdetu ahal duzue zer ikusi behar duen Cochabamba eta urruti dagoen Boliviak, Europarekin. Bi arrazoi daude ordea: alde batetik ur kudeaketaren pribatizazio prozesu berdintsuak Europan gertatzen ari dira. Eta bestalde Betchelekin batera, europako konpainiak zeuden ur boliviarraren pribatizazioan. Finantza mundu elkar korapilatuan, ardurak pentsa ahal den baino zabalagoak eta globalak dira.*

#### **4.1) Ur zerbitzuen pribatizazioa gertutik begiratua**

*Munduan ia edonon, ur zerbitzua pribatizatzeak esan nahi du kudeaketa “kapital sozietate” baten eskutan uztea. Akzio sozietate bat, zuzenbide pribatuko ente bat da: S.P.A. bateko objektu soziala, benefizioak egin eta irabazteak akziodunen artean banatzean datza. Irabazteak beste edozerren aurretik datoz: ondasunaren babestearen aurretik eta zerbitzua guztien esku ipintzearen aurretik. Ura produktu bat bada, produktu gehiago saldu eta akziodunentzat benefizio gehiago izango da (eta horiek ez dute inongo interesik izango SPAREN sarrerak murrizteko)*

*Italian pribatizatutako SPA konpainietako programa industrialei begirada bat ematen badiezue konturatuko zarete aurreikusi eta programatzen dutela ur kontsumoaren igoera bat (tarifen igoeraz gain) eta benefizio gehiago sortuko duen salmenten handiagotzea. Kontraesan garbi bat dago horrelako helburuaren artean eta ondasun gero eta murriztago eta preziatuago baten babesean. Baina natural bezala agertu nahi dute interes orokorreko zerbitzu publikoa den ur zerbitzuaren helburua, benefizioak akziodunen artean banatzea izatea. Hau da pribatizazioaren oinarrian dagoen perbertsioa. Akziodunentzat izango den irabazien maximizazioa, tarifak igotzetik sortzen da, inbertsioak gutxitu, lanaren kostua jaitsi eta lan kontratu prekarioak erabili.*

*Pribatizazioa noski prozesu konplexu eta artikulatua da, hau da, ez da soilik sozio pribatuak akzio kapitalean sartzea (sozietatearen disposizio jabetza); beste kapitulu erabakigarri bat “decision making” edo erabaki hartzeak dira (erabakiak Administrazio Kontseiluak hartzen dituen adibidez, udaletxe bateko kontseiluaren orde). Edota finantziario iturriaren pribatizazioa (zerbitzuaren finantziarioa eta inbertsioena, osorik tarifetatik datozenean, fiskalitate orokorraren inongo laguntzarik gabe).*

*Erregimen pribatizatu batean, ondorioz, biztanleek ez dute ordaintzen kontsumoak eta kudeaketarako beharrezkoak diren kostuak (logikoa den bezala) baizik kudeaketaren benefizioak eta “inbertitutako kapitalen ordainketa aproposa” ere. Eta horri gehitu behar ezohiko inbertsio guztiak. Oinarrizko ondasun bat tarifa bidez finantziatzen den bakoitzean gertatzen de bezala, distribuzioaren efektuari dagokionez, hau atzerapausu nabarmena da: aberatsak eta pobreak neurri berebean ordaindu beharko dute ezohiko inbertsioa. Fiskalitate orokorra ordea progresiboa da (biztanle aberatsagoak, pobregokoak baino kuota handiagoa ordaintzen du ospital bat edo eskola bat edo akuedukto bat finantziatzen denean).*

*Pribatizazio proiektua beraz konplexua da: ez dio soilik benefizioa ematen pertsona pribatuari. Baizik eta erabaki esfera ere pribatizatu egiten du eta zerbitzu publikoen funtzionamenduaren kontribuzioan egon beharko legokeen printzipio progresiboa ere desegiten du*

#### **4.2) Zergatik pribatizatzen da?**

*Zergatik pribatizatzen da? Garbi dago zertan datzan subjektu pribatuen interesa, oinarrizko eta ezinbesteko zerbitzu publikoak kudeatzerakoan. Are gehiago ekonomia krisi garai batean. Biztanleek ezin diote uko egin ondasun komun eta zerbitzu publikoei (ura, osasuna, ospitaleak). Ez dira hautazkoak. Edan, bai edo bai egin behar da. Beraz eskaera ezinbestekoa eta anelastikoa duten zerbitzuak dira (garantizatuak hain zuzen): ekonomia krisi edo rezesio une batean izanik, agian telefono mugikor berriari edota kotxeari uko egin ahal diozue baina ezin da etxeko iturria ez ireki, ezin bait da edateko edo sukaldatzeko edo garbitzeko ura arnegatu.*

*Kapital pribatuak ezinbesteko eskaera duen zerbitzu publikoa kudeatzea lortzen duenean, benefizio parasitarioak bermatzen ditu, are gehiago krisi garai batean.*

*Ur zerbitzua, bestalde, "monopolio naturala" da: lurralde bakoitzean akuedukto bakarra pasatzen da eta ura eskaintzen duen hornitzaile bakarra. Pribatizazioarekin, monopolio natural publikoa, monopolio pribatu indartsuan transformatzen da.*

## **5) Erreferenduma eta Mugimendua Italian**

### **5.1) Erreferenduma: bi galderak**

*2011 urteko ekainean, italiarren 95% uraren pribatizazioaren kontra botatu zuen erreferendumean. Italian, erreferenduma baliagarri izan dadin, boto eskubidea duten 50% + 1 ek bozkatu behar dute.: horren da altua "quorum" hau, azken 16 urtetan aurkeztutako erreferendum bakar bat ez dela pasa ahal izan, boto emaileen porzentaia ez bait zen inoiz zifra horretara ailegatu.*

*Lehenengo aldiz Italiako Errepublikan, partidu politikorik gabe, indar sozialak soilik (mugimendu sozialak, ingurugiro erakundeak, sindikatuak) aurkeztutako bi erreferendumek aipatutako quoruma lortu dute. Behetik jaiotako erreferendumak. Italiako erreferendumen historian, "bai" kopuru handien lortu duten erreferendumak izan dira (ia 95%).*

*"Bi erreferendum" diot, hain zuzen bi izan bait ziren: lehenengoa "bai" botatuz, italiarrek ur zerbitzuen kudeaketa eta transportea "pribatizatzeko obligazioa" indargabetu egin dute, estatu osoan. Gobernuak martxan ipini zuen pribatizatzeko obligazioa. Betebehar hau orain ezindua izan da erreferendumari esker baina "ura guztien ondasuna" mugimenduaren engaiamenduak erne eta aktibo jarraitzen du zeren eta pribatizatzeko obligazioak ez du esan nahi "berriz ere publiko" egitera behartzen dituenik aurretik pribatizatuak izandako ur zerbitzuak (azken 10 urtetan hainbat herritan pribatizatuak izan da zerbitzua).*

*Bigarren erreferendumarekin ordea, italianoek lortu dute gaur egun ur zerbitzuak kudeatzen duten enpresek ez dezaten ahal benefizio edo irabazirik izan: ura ez da merkataritza produktu bat baizik eta guztion ondasuna eta inork ezin du irabaziak lortu ura saltzearekin (teknikoki ezindua izan dena, hauxe da: "inbertitutako kapitalen ordainketa aproposa"). Ur kudeaketan subjektu pribatuen interesa dirua irabaztea denez gero (biztanleek tarifa eta erretribuekin ordaindutako diruarekin irabazten bait dute) erreferendum honetan "bai" botatzeak esan nahi zuen pribatuak ur zerbitzutatik alde egin araztea, negozioa des-erakitzea. Ura berriz ere publiko bihurtzeko bide bakarra zen, "zuzeneko demokrazia" mekanismo baten bidez. Italiako erreferendumak ezin dira "propositiboak" izan baizik eta indargabetzaileak. Hau da, erreferendumarekin ezin da ur zerbitzuak publikoki kudeatzeko lege bat egin. Ordea, lege bat ezindu edo indargabetu ahal duen erreferenduma posiblea da).*

*Bigarren erreferendum hau gaur egun oraindik ez da "martxan ipini": erreferendumak automatikoki eragin duen legea bortxatzen ari dira oraindik ur zerbitzu pribatizatuak (biztanleek oraindik ordaintzen ari dira "inbertitutako kapitalen ordainketa aproposa"): datorren ekainaren 2.an, Eroman manifestazio nazionala deitu dugu, erreferendumaren botoa errespetatu dadin. Eta ez ditugu ordainduko ur zerbitzuen kudeatzaileen irabaziak, honela erreferenduma zuzenean aplikatuz.*

### **5.2) Erreferendumaren esanahi sakona**

*Baina ez dizuet kanpaina horri buruz hitz egin nahi, baizik eta erreferendumaren esanahi sakonaz eta honen sustraietaz: erreferenduma ez da bapatean jaiotako, hutsaletik. Ia 10 urte iraun duen lan luze*

*batetik jaio da, lurraldetan hainbat sujeto ezberdin batu ditu, ura guztien ondasuna kanpainaren inguruan.*

*Erreferenduma ez da soilik izan eskubiaren porrot sail baten hasiera (Berlusconi eta PDL partidua, Lega Nord). “Pribatismo”aren kulturaren porrota ozena izan da ere, ezkerria bera enkantatu zuen kultura. Merkataritza produktu eta guztien ondasunen arteko ezberdintasuna ulertzeko inkapaz bihurtu zuena. Bai eta irabazien terrenua eta eskubideen esferaren artekoa, merkataritza eta interes orokorreko zerbitzuen artekoa. Zerbitzu publiko baten helburua akziodunen artean irabaziak banatzea, kapitalak ordaintzea eta benefizioak lortzea, naturala kontsideratzeraino iritsi da.*

*Erreferendumaren botazioan, garaituak izan dira ezinbesteko eta oinarrizko zerbitzutan, ur zebitzua lez, errenta parasitarioen bila diarduten pribatuak eta oligarkia politikoak. Guztien ondasunak maizegi haien ondasun propioak balira interpretatu dutenak: pribatizazioaren lehen urratsak korruptoak izan dira eta lagunen arteko kontuak balira bezala kudeatuak. Gutxi batzuren interesak, guztion ondasunen aurretik ipiniz.*

*Demos ikerketak azpimarratu duen bezala, uraren mugimendurekin zentzu komunaren edo sen onaren transformazioa hasi da: italiaroen lengoai publiko eta pribatuaren mapak, hitzen gerarkia berri bat nabarmentzen du: “indibidualismo” eta “leader indartsu” hitzen orde, “guztion ondasun” bezalako termino berriak. Eraikitzen ari den simbolo horizonte berri honen mamian, esperientzia zehatzak eta materialak daude ( adibidez gorputzean esperimentatua izan da oinarrizko ondasun eta zerbitzutan, “pribatuaren” sarrera soluzio baino gehiago arazoa izan dela ). Baina desioak ere daude (harremanak, elkarrekotasunak). Eta amorruek ( élites politikoen logika pribatuak eta haien interes partikularrek bahituta duten “publiko” degeneratu baten kontrako amorrua ere)*

*Erreferendumaren lehenengo ikasgaia, aldaketaren posibilitatea bera da. Eta beraz “meta – emaitza” antzeko bat: konfiantza berreskuratu da “behetik” gertatzen den akzio politikoan. Urte luzetan kontatu digute prozesu global handien aurrean inpotenteak ginela: ezinezkoa, gure indarrekin, pribatizazioen indarrak gelditu. Aberastasunaren polarizazioa. Merkatuaren nagusitasun absolutoa.*

*Orain dela hamar bat urte, talde txiki batzuk uraren defentsan – guztion ondasunen simboloa – lehen pausoak ematen hasi ginenean, ameslari eta utopista deitzen gintuzten. “Munduaren jarioa” ulertu eta hari moldatu ezin genuenak. Uraren mugimenduak erakutsi du patu hura ez dela aldaezina, norabidea aldatu ahal dugula, agenda politiko berri bat eraiki daitekela. Lurraldetan pazientziarekin lan egiten, internet eta sarearen instrumentu berriak erabiliz (ohizko komunikabideak depotenziatu eta trufatu ahal dituztenak). Baina bereziki helburu bat duten koalizio zabalekin bat eginik – helburu konkretuak eta printzipio unibertsalak elkartzen dituztenak – posible da “beste mundu” bateko zatiak eraiki eta kultur kolektibo berri bat sortu.*

*“Guztion ondasunen” alde lan egitea, nire ustez, “edukien politikara” bueltatzea da. Guztion ondasunak, zentzuzko horizonte berria dira. Terreno eta konfliktu ezberdinak biltzeko gai direnak: ura bezain material den zeozteretik, materia ezezkia den web edo sarera. Eta kapaz dira potentzialki guztioi mintzatzeko (bai eta “eskubiko” boto emaile gehienei ere). Partidu politikoen eremu itxitatik aise aldentuz. Abiapuntua baldin bada elkarrekin partekatzen duguna (honen onarpena eta kudeaketa parte hartzailea) proiektu eta zentzu politiko bat eraikitzen ahal da. Elinor Ostromek bere lanetan erakutsi digu komunitate batek bere barnean elkarkidetasun handia duenean, Commons en kudeaketa kolektibo eraginkorra lortzeko kondizio nagusiak gertatzen direla. Baina egia da ere alderantzizkoa: guztiona denaren zentzua berreskeratzeak eta Commons*



*diren ondasunen kudeaketa kolektibo formak eraikitzeak, biztanleen arteko elkarkidetasun soziala sortzen du.*

*Uraren erreferendumarekin gertatutakoak, susmo bat uzten digu: eraikitzen ari den unibertso honen gaitasuna, non edukiak eta metodoak banandu ezinak diren. Horren isla, uraren mugimendua urtetan hazten joan den neurrian, forma orizental eta parte hartzaile zehatz mehatzak eskuratu ditu. Lurraldetan jaioa da eta proposamen koerente eta eraginkorrak landu ditu. Elkargune errealak eta birtualak asmatuz, media mainstream komunikabideak hasieran saltatuz eta ondoren derrigortuz.*

### **5.3) Uraren aldeko mugimenduaren estruktura**

*Uraren aldeko mugimendua ez da gau bakar batean jaio. Sedimentazioprozesu luze batem emaitza da. Prozesu molekularra, duela ia 10 urte lurralde sareak eraikiz hasia. Haien artean konektatu eta “Forum italiano dei movimenti dell'acqua” jaio zen. gaur egun lurraldeko komiteak, antolakuntza nazionalak, talde formal eta informalak biltzen ditu, gerarkiarik eta erpinik gabe.*

*Gure lehenengo elementua, “sare estruktura” da. Forum aren barruan elkar bizi dira estrukturatutako errealtateak, informalak, handiak eta txikiak, antolatua eta bat batekoak, bailarakoak eta nazionalak, pisu berberarekin bai eztabaidatzeko eta bai erabakiak hartzeko. Funtsezko elementuak dira kontsensuaren metodoa eta antolakuntza estruktura simple eta arina: asamblada orokorrak (urtean behin normalki) erabakitzen ditu proiektuaren eta akzioen sakoneko elementuak. Lan taldetan artikulatzen da (eta hauek erabakiak plenariora ekartzen dituzte). Koordinakuntza ireki bat (hilabeterokoa normalki) ardatz nagusiak gauzatzen ditu eta elkarrekin asambladan hartutako erabakiak. Eta azkenik, politikoa ez den idazkaritza operatiboak, lana bultzatu eta antolakuntza kontuak konpontzen ditu.*

*Antolakuntza forma hau, boterea konzentratzearen dinamika post demokratikoaren kontrakoa da. Jakintzen pluralitatea balioztatzen du. Parte hartze zuzenari erabakiak hartzeari adorea eman. Rotazio mekanismoak lehenetsi. Leadership zabal eta ireki baten eraikitzea, uraren aldeko mugimenduaren elementu funtsezkoa da.*

*Polizentrismoa, Lurraldean babesa izatearen kausa eta efektua da: uraren aldeko mugimenduaren zentroa hainbat periferiatan da, hastapenetatik komiteak eta lurralde mugimenduak osatzen dutelako. Estruktura honen bidez, erreferendumaren kanpainan ekintzak eta parte hartze zuzenak izan dira italiako zona urrunetan ere.*

*Italiako uraren aldeko mugimenduaren bigarren ezaugarri nagusia, “proposamen gaitasuna” da. Uraren aldeko mugimenduak, hasieratik elkartu ditu modelo pribatuaren aurkako kritika eta modelo alternatiboen proposamena. Maila internazionalan eta nazionalan eta lokalean ere. Proposamen konkretu eta zehatzak, parte hartze mekanismoen bitartez landuak, jakintza ezberdinak balioztatzen dituenak.*

*Ez da ba kasualitatez, uraren aldeko mugimenduaren sorreran, ekimen herrikoi lege bat izatea. 2005 urtean Toscana herrialdean aurkeztua. 2007 urtean, hau da, “Forum italiano” delakoa sortu zen urte bete ondoren, ekimen herrikoi lege nazionala bilakatuko zena: “legegile izan gaitezen”, orainean eraginkorrak izan daitezken legetan, mugimenduen proposamenak kondentsatu.*

*Erretorika usteldu batek nahi luke mugimendu sozialen dimentsioa protesta eta EZ hutsera murgildu. Eskaintzen duen eskema zera da: gizarteak formaezko galderak izango lituzke eta politika klasiko instituzionalak (galdera zuzenak egiteko gai ez dena, bestalde) erantzun aproposak emango lioke. Guztion ondasunen aldeko mugimenduen ordea, galderak eta erantzunak lantzen*

*dituzte. Herriak formalki duen burujabetasun zati bat berreskuratzen dute. Talde elitistak bahituta dutena, haien izenean erabiliz. Edota “merkatuek” eta nazioarteko estruktura ez-demokratikoez bereganatu dutena (FMI, BM eta abar)*

#### **5.4) Demokrazia**

*Mugimenduaren slogan zabalduenetarikoa hau da: “ura idatzi, demokrazia irakurri”, eta ez da kasualitatez bi kontzeptuak elkartzea estuki. Identifikazio honek bi zentzutan gutxienez funtzionatzen du. Ikusi dugun bezala, demokrazia eta parte hartzea, mugimenduaren erabakien mekanismoen eta antolakuntza moduen mamia dira. Era berean, demokrazia da mugimenduak proposatzen duen uraren eta guztion ondasunen gobernu berri parte hartzailearen bihotza. Asmatu behar den publiko berriaren ardatza. Laburbilduz, demokrazia eta parte hartzea mugimenduaren forma eta edukia dira, bide eta helburu.*

*Alderantziz, pribatizazioa lehenik eta behin erabakien esferaren pribatizazioa da. Guztion ondasunen erabakiak, kudeatzen dituzten kapital sozietateen barruan hartzen dira (Italian SPA): zuzenbide pribatu subjektu hauek, lurraldeen gobernu instituzio postdemokratikotan bilakatzen dira. Guztion ondasun komunei dagokien erabakiak, administratzaile delegatuek administrazio kontseilutan hartzen dituzte edota zuzenean Bolsako zerrenda eta dinamiketan.*

*Guztion ondasunen mugimendu globalak aldarrikatzen du bizitzarako nahitaezko diren ondasun hauek eta kudeaketa parte hartzailea desmerkatarizatzea. Guztion ondasunen gobernuaren eta haiei lotutako zerbitzuen autogobernua aldarri du, kolektibitate bakoitzaren arau eta lanabesak erabiliz. Zentzu honetan berriz ere argitzailea iruditzen zait gure herri ekimen legea. Biztanleak legegile izateko desioa zabaldu duena, guztiontzat lege eta arau berriak jorratuz, komunak diren horiek, gizarteko gizabanako bihurtzen gaituzten horiek, denen artean kudeatu daitezten. Merkatuan norgehiagoka ari diren monadak ordez.*

*Berrasmatu behar den demokrazia da sakonean gaur egun, gizartearen inguruan “mugitzen ari dena”. Ekimen herrikoi lege instrumentutara jotzea eta ondoren erreferendumera, ez da kasualitatea. Europan erreferendumaren gaia – hau da, nahitaezko gauzetan zuzenean erabakitzeko guztien eta bakoitzaren eskubidea – funtsezkoa bilakatu da (Espainiako indignatuen plaza eskaerak, Italiako lantegi eta lan mundua eta abar). Oبرا erraldoien kontrako mugimenduaren bihotzean ere, lurraldea guztion ondasun eta erabilera balore gai berbera dago (AHT kontrako mugimendua edota No Dal Molin Italian dagoen base militar Estatu Batuarren kontrako mugimendua): nori erabakitzen du lurraldearen eta guztion ondasunen etorkizuna? Guztion ondasunek, gune publiko ez estatal batean pentsatzen laguntzen dute. Demokrazia bera forma berritan berdefinitzea gonbidatzen dute. Subiranotasunean berpentsatzea bultzatzen gaituzte, lurralde, ondasun eta biztanleen arteko harremanetan sakontzea.*

**TOMMASO FATTORI**

*Associazione Culturale Euskara eta UPTER Euskal Sailak itzulia*  
[www.euskara.it](http://www.euskara.it)